

HERRIKO KONTSEILUAREN BILDUMA 2024ko abenduaren 09a

Kontseilarien kopurua	15	Bi mila eta hogeita laugarren urtean, abenduaren bederatzian, arratseko zortzi eta erdietan, Baigorriko Herriko Kontseilua bildu da, Herriko Etxean, jaun auzapezak deiturik. Dei hori 2024ko abenduaren 02an afixatua izan zen eta 2024ko abenduaren 02an posta elektronikoz igorria. Antton CURUTCHARRY bilkuraburu zen.
Hor zirenak	14	
Bozkatzaileak	15	

Hor zirenak: ARANGOITS Isabelle anderea, BIDART Pierre Betti jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoa jauna, MOUSQUES Bernadette anderea eta OLÇOMENDY Betti jauna

Ahalordea(k): BIBES Jean Paul jaunak ahalordea emana zion DUPUY Maddalen andereari

Bilkurara ezin etorria jakinarazia zuten: BIBES Jean Paul jaunak
Bilkurako idazkaria izendatu da: MOUSQUES Bernadette anderea

Parte-hartzaileak errezibitu eta quoruma bazela egiaztatu ondotik, Bilkuraburuak proposatu du gai zerrenda hau aztertzea:

Aipagaiak

- CDG64ren hautuzko kideztarako parte hartze hitzarmena - Babes osagarria – Behar orduetako kutxa
- RIFSEEPen mugen aldaketa
- Euskal Elkargoko mutualizazio eskema proiektuaren onartzea
- CDG64k proposatu ARE dossierren kudeaketa-hitzarmena
- Mandatua ematea CDG64ri estatutu-asurantz talde-kontratua lehian ezartzeko.
- Irulegiko herriak eskola publikoko funtzionamendu gastuetan parte hartzea
- Herria Zerga Behatoki Partekatuari kideztzea: Herria kideztzea eta hitzarmena Euskal Elkargoarekin.
- Euskal Elkargoaren Geografia-Informazio Sistemara sartzeko zerbitzu komunari kideztzeko hitzarmenaren izenpetzea.
- 2024ko 2. Funts Berdea -herriko argiak berritzeko finantzamendu-proiektuaren onartzea.
- Polizia-isunen diru-zuzkidura galdea (Belexiko bidea, Larlako bidea, Uharrietako bidea).
- Larrazkena zahar etxearen handitzeko eta berritzeko obren merkatuaren esleipena.
- US Nafarroak errugbi zelaiaren argitzeko gastuetan parte hartzea – hitzarmen baten egitea (gibelatua)
- EHTEri kideztzea (Euskal Herriko Trail Estazioak), hitzarmen baten egitea.
- Pujo eskola publikoko kanpoko erabiltzaileei apairuak hornitzeko hitzarmenaren izenpetzea (2025)
- Aurrekontuaren aldaketa erabakia.
- Gai orotarik.

0. AITZINEKO BILKURAREN BILDUMAREN ONARTZEA

Gai zerrendako gaiak eztabaidatu aitzin, Herriko Kontseiluak 2024ko azaroaren 05eko bilkuraren bilduma onartu du.

1- 2024.66. DELIBEROA - CDG64ren HAUTUZKO KIDETZARAKO PARTE HARTZE HITZARMENA - BABES SOZIAL OSAGARRIA – BEHAR ORDUETAKO KUTXA – 4.1 NOMENKLATURA

Auzapezak oroitarazi du **indarrean den araubidearen** arabera lurraldeetako enplegatzaile publikoek eta haien erakundeek nahitaez parte hartze bat ordaindu behar dutela langileen behar orduetako kutxan (“ordainsariaren mantentzea”) 2025eko urtarilaren 1az geroztik.

Parte hartze hori obratzeko moldeak ordenantza eta dekretu bidez zehaztuak dira:

- 2011ko azaroaren 8ko 2011-1474. dekretua, lurralde elkargoek eta haien egitura publikoek beren langileen babes sozial osagarria finantzatzeko parte hartzeari buruzkoa;
- 2021eko otsailaren 17ko 2021-174. ordenantza, funtzio publikoko babes sozial osagarriari buruzkoa;
- 2022ko apirilaren 20ko 2022-581. dekretua, babes sozial osagarriaren bermeei eta lurralde elkargoen eta haien egitura publikoek finantzaketan nahitaez parte hartzeari buruzkoa.

Auzapezak zehaztu du Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroak kontsulta bat abiatu duela Akitania Berriko kudeaketa zentroen eskualdeko kooperazioaren mailan mutualizatua, **kolektibitateen eta langileen kidetza hautuzkoa duen parte hartze hitzarmena izenpetzeko** "behar orduetako kutxarako".

Kontsulta horren ondotik, Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroak, 2024ko ekainaren 27an herriarteko LBSren aldeko iritzia bildu ondoren eta deliberatu ondoren (2024ko ekainaren 28ko DG8- 280624. DELIBEROA), **2024ko uztailaren 11n parte hartze hitzarmen** bat izenpetu du **"behar orduetako kutxarako", MUTUELLE NATIONALE TERRITORIALE (MNT)** mutualitatean, **RELYENS** artekariarekin, sei (6) urterako.

Hitzarmen hori 2025eko urtarrilaren 1ean indarrean jarriko da eta 2030eko abenduaren 31n bururatuko.

Elkargoek librokari har dezakete hitzarmen hori 2025eko urtarrilaren 1etik goiti eta hitzarmenaren denbora guzian. Kidetze hori eta elkargoaren parte hartzearen zenbatekoa delibero bidez erabaki behar da eskumena duen LBSren iritzia bildu ondoren.

Elkargoko langile bakoitzari dagokio, parte hartzeko hitzarmen honen kariatara, kontratu indibidual bidez hartu nahi dituen bermeak eta tasak hartzea, nahitaezko gutxienezko bermeekin: ezintasuna eta elbarritasuna.

Oroitarazten da elkargoaren finantza parte hartzea **parte hartze molde bakar bati esleitu behar zaiola eskusiboki**.

Beraz, elkargoak erabakitzen badu CDG 64ren parte hartze hitzarmena izenpetzea, haren parte hartzea hitzarmena izenpetu duten langileen kontratuei bakarrik ordaintzen ahalko zaie. **Ez zaie gehiago labeldun hornitzaileekin izenpetu kontratu indibidualei ematen ahalko.**

Ikusirik Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroak 2024ko ekainaren 28an hartu DG8-280624. deliberoa, "behar orduetako kutxa" arriskuaren parte hartze hitzarmena hitzartzeko kandidatura hautatu baitu, Ikusirik Girondako Kudeaketa Zentroaren jakinarazpena (eskualdeko kooperazioaren koordinatzaile gisa), 2024ko uztailaren 17an MUTUELLE NATIONALE TERRITORIALE mutualitatean RELYENS artekariarekin lehian ezartzeko deialdi publikoa ukan ondoren, Ikusirik Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroaren eta MUTUELLE NATIONALE TERRITORIALE mutualitatearen artean 2024ko uztailaren 11n izenpetu parte hartze hitzarmena, RELYENS artekariaren bidez, Ikusirik 2024/11/21eko herriarteko Lurralde Batzorde Sozialaren iritzia

Deliberatu ondoren, Herriko Kontseiluak erabaki du:

- **KIDETZEA** Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroaren eta RELYENS artekaria duen MUTUELLE NATIONALE TERRITORIALE mutualitatearen (MNT) artean hitzartu parte hartze hitzarmenari "behar orduetako kutxa" ordaintzeko, **2025eko urtarrilaren 1ean indarrean sartzeko.**

- **BAIMENA ematea** auzapezari CDG64ren partaidetza-hitzarmenaren izenpetzeko baita ere horren ondorioz gertatuko diren agiri oro,

- bere finantza parte hartzea CDG64ren **"behar orduetako kutxa" arriskuari buruzko partaidetza-hitzarmenari lotu kontratua hartu duten** funtzionario titularrei eta titular-gaiei **EMATEA** eskusiboki baita ere aktibitatean dauden zuzenbide publikoko eta pribatuko kontratupeko langileei,

- elkargoaren finantza parte hartzea 27 €-tan (gordina) **FINKATZEA** langileko eta hilabeteko, langilearen urtesari osoaren muga,

Parte hartzea zuzenki langileari ordainduko zaio bere soldata agiriaren bidez,

Behar orduetako kutxari buruzko xedapenen gaineko osasun eta behar orduetako kutxa arriskuen arloko enplegatzailearen parte hartzeari buruzko 2013/11/22ko deliberoa **partez BALIOGABETZEA**.

- **ZEHAZTU du** beharrezko kredituak aurreikusiak izanen direla kontu-aldian.

- Kargutan diren kideen kopurua: 15
- Hor ziren kideen kopurua: 14
- Bozkatu dutenen kopurua: 15
- ALDE: 10 prezio finko baten finkatzeko
- 5 langileen diru-sarreraren arabera modulazioa
- KONTRA: /
- ABSTENTZIOAK: /

2- 2024-67. DELIBEROA – RIFSEEP SARIEN MUGEN ALDAKETA – 4.5 NOMENKLATURA

Auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio 2017/03/03ko, 2018/02/02ko eta 2021eko otsailaren 26ko deliberoen arabera, ordainsari araubide bat plantan ezarri zela Baigorriko herriko langileentzat. Proposatu du ordainsari araubidea berrikustea sail teknikoko lan eremu batzuetako sarien mugak aldatzeko gisan.

ZENBATEKOAK

Aldaketak sail teknikoari dagozkio oroz lehen baita ere sarien atxikitzeari eritasun luze edo grabeetarako geldialdia gertatuz gero.

Sail teknikoak

- Lurraldeko teknikariak (B maila)

Taldea	Enpleguak	IFSE urteko gehienezko zenbatekoa	CIA - urteko gehienezko zenbatekoa	Urteko gehienezko zenbatekoa
1. taldea	Zerbitzu teknikoetako arduraduna	11 000	1 300	12 300

- Teknikari arduradunak (C maila)

Taldea	Enpleguak	IFSE- urteko gehienezko zenbatekoa	CIA - Urteko gehienezko zenbatekoa	Urteko gehienezko zenbatekoa
1. taldea	Zerbitzu teknikoetako arduraduna	11 000	1 300	12 300

- Laguntzaile teknikoak (C maila)

Taldea	Enpleguak	IFSE- urteko gehienezko zenbatekoa	CIA - Urteko gehienezko zenbatekoa	Urteko gehienezko zenbatekoa
1. taldea	Eginkizun anitzeko teknikari laguntzailea	8 000	950	8950
2. taldea	Teknika laguntzailea	6 000	900	6900

MANTENTZEKO EDO KENTZEKO MOLDEAK LANGILEA FALTA IZANEZ GERO

Memento batez lanean falta diren langileei doakienez, aplikatuko litzaizkieke Estatuaren langileei aplikatzen zaizkien xedapenak.

Horrela, sariak tratamenduaren egoeraren arabekoak izanen dira:

- urteko oporretan
- lan denboraren egokitze eta murrizte egunetan
- eritasun arruntetarako pausuetan, falta izate egunaren aplikazioaz kanpo
- zerbitzu istripuengatik eta laneko eritasunengatik hartu geldialdian
- amatasun eta aitatasun eta haurraren errezibitzeko geldialdian, adopzio geldialdian.
- Terapiazko zati denbora lanaldietan.

Eritasun luzeko eta eritasun larrietako geldialdietan, sariak izanen dira:
ordainsari araubidearen % 33 1. urtean eta % 60 2. eta 3. urteetan.

Sariak arrunt geldituko dira:

- eritasun luzeko geldialdian

Langilea eritasun luzeko, iraupen luzeko edo eritasun larriko geldialdian denean, aitzinetik eritasun arruntagatik eman geldialdian edo lan-istripu edo lanbide-eritasunagatik geldialdi denboran egin galdearen ondotik, lehen geldialdi horretan errezibitu sariak eta kalte-ordainak atxikiko ditu langileak.

Sarien ordainketa atxikiko da tratamenduaren proportzio beretan geldialdi hauen kasuan:

- lanetik eskas izateko baimen bereziak,
- formakuntzara joatea (salbu formakuntza profesional geldialdien kasuan),

Sarien ordainketa geldituko da geldialdi hauen kasuan:

formakuntza profesionala; diziplina prozedura baten karietara gertatu kanporatzea.

Herriko Kontseiluak, auzapeza entzun ondoan bere esplikazio osagarrietan, Herriarteko Lurralde Batzorde Soziala osatzen duten bi biltzarrek 2024/09/12ko bilkuran iritzia eman ondoan eta eztabaidatu ondoan,

KONTUAN HARTURIK deliberazio honen bidez erabaki sariak eta ordainsariak finkatzen dituzten testuak, elkargoan aplikagarriak diren baldintza berezien arabera

ONARTU ditu auzapezaren proposamenak RIFSEEPi dagozkion esleipen-baldintzei buruz, hartzaileei, ordainsarien hobetzei eta delibero honetan aipatu zenbatakoei buruz.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA:
ABSTENTZIOAK:

3- 2024-68. DELIBEROA - EUSKAL HIRIGUNE ELKARGOKO MUTUALIZAZIO ESKEMA PROIEKTUA

– 5.7 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak esplikatu du zerbitzuen mutualizazioa administrazioen antolaketa molde bat dela, lurralde-elkargoen (herriak, departamendua, eskualdea) eta haien taldeen (HELEP, sindikatuak...) artean giza baliabideak, baliabide materialak edota funtzionalak bateratzeko xedea duena, bakoitzaren eskumenen errespetuaren eta lanaren karietara.

Horizontala (maila bereko elkargoen artean) edo bertikala (maila desberdineko elkargoen artean), gorakoa (1. mailako kolektibitate 2. mailako kolektibora) edo beherakoa (2. mailako kolektibitate 1. mailako kolektibora), zerbitzuen mutualizazioak logika hirukoitz bati erantzun diezaioke:

- ordezkaritza: zerbitzu hornitzea, obralaritza eragilea...
- partekatzea: langileen esku uztea, ondasunen partekatzea...
- elkartzea: zerbitzu komuna, eskaera-taldea...

Praktika horien garapenarekin eta hedapenarekin batera, Hexagonoko mailan, oinarri juridikoa etengabe indartu da lehen deszentralizazio-legeez geroztik, eta HELEP erakundeentzat mutualizazio eskema proiektu bat ukaiteko parada aurreikusten du, kide diren herriek iritzia eman ondotik, organo deliberatzaileak onar dezan.

Euskal Hirigune Elkargoaren eta kide diren herrien arteko zerbitzuen mutualizazioa jadanik sendoa zen lurraldean. Ipar Euskal Herri mailan aspalditik biziki zabalduak diren praktikak, 2020an onartu Gobernantza Itunaren antolamendu-printzipioak eta 2022ko uztailean onartu Zerga eta Finantza Itunaren obratzeko ekintza sortzaile gisa programatzea, errealitate horren lekuko diren elementuak dira.

Beraz, bere lurraldeko mutualizazio-praktikak jarraitzeko eta sendotzeko, Euskal Hirigune Elkargoak 2022ko irailean erabaki zuen bere lehen mutualizazio eskema proiektuaren apailatzea abiatzea.

Hiru xede ziren: **gure herrikideei eskaini zerbitzuen maila hobetzea, bakoitzaren elkargoen kudeaketa optimizatzea eta tokiko blokearen eraginkortasunean parte hartzea.** Eskema hori egiteko estrategia lau ardatzen inguruan egituratu da:

- Mutualizazio “anbiziotsua”: lurraldeak epe ertainean eskaintzen duen ahalmenaren arabera, mutualizaziotik

emaitza handiena ateratzeko xedean oinarritua

- Mutulaziazio “progresiboa”: praktikak indartzeko etengabeko prozesu batean oinarritua da, urtero finkatu, ikertu eta obratu ekimen-blokeen bidez egiten dena,
- Mutualizazio “pragmatikoa”: praktika onak esperimentatzeko, sendotzeko eta orokortzeko esperimentazio-logiketan bermatua,
- “errespetuzko” mutualizazioa: lurraldean jadanik abiatuak diren ekimenak mantendu nahi dira, herrien edo hirugarrenen gaineko hegemonia xederik gabe.

Euskal Elkargoak finkatu anbizioei eta helburuei ihardesteko, mutualizazio eskemaren apailatzeko desmartxak bost helburu ditu:

- mutualizazio praktiken oraingo egoeraren diagnostikoa egitea Ipar Euskal Herri osorako,
- epe labur eta ertainera obratzekoak diren mutualizazioa alorrak identifikatzea Euskal Elkargoko herrientzat eta lanbide-zuzendaritzentzat,
- hastapen batean landu beharreko mutualizazio-bideei lehentasuna ematea eta horiek programatzea, hori baita eskemaren oinarria,
- denboran martxan ezarri beharko diren metodologia-elementuak modelizatzea, mutualizazio-eskemaren dimentsio ebolutiboa bermatzeko,
- antolaketari, legeari eta finantzei dagokienez lehenetsi bideen egingarritasun operatiboa aztertzea,

Euskal Elkargoaren ezaugarri bereziek, formalizazio-erreferentzial faltak edo pareko erreferentzia-modelo baten faltak garapen prozesu bat lehenestea ekarri dute, hauetan oinarritua:

- elkargoaren kide diren 158 herrietan eta haien ordezkarietan, aldizka partaide, erabakitzaile eta hartzaile desmartxaren urrats bakoitzean (inkesta, tailerrak, iritzia, hitzarmena eta obratzea),
- herriko eta herriarteko langileen mobilizazioa, elkarrekin eraikitze logikaren barnean, desmartxa guzian zehar parte hartzaile eta eragile izatera eramaten dituenak,
- lurralde eremuen laguntza (lurralde batzordea, lurralde eremu arduraduna) baitezpadako sostengu, mobilizazio eta hurbileko obratze gisa Euskal Elkargoa bezalako lurralde zabalaren arabera.

Bi urteko lanaren emaitza, mutualizazio eskema proiektu horren apailatzea (txosten honi atxikirik) honela gauzatu da:

- **Informazio eta akulturazio ekintzen plantan ezartzea** (mutualizazioa plantan ezartzeko printzipioak, formak eta moldeak...) Euskal Elkargoko langileentzat eta hautetsientzat,
- **mutualizazio praktiken oraingo egoeraren diagnostikoa egitea**, herrietan inkesta egiteko lan zabal baten bidez, jadanik adierazgarria den maila egiaztatzen duena:
 - herrien artean, bakoitzaren eskumenak betez (errepideak, eskolak...) eta hurbiltasunean (bost herri, bana besteko)
 - herrien eta Herri Elkargoaren artean, gorako logikak lehenetsiz, Euskal Elkargoaren politika publikoen obratzea laguntzeko, eta beheko logikak, lurralde azpian edo lurralde osoan ingeniariaritzaren esperientzia partekatuari buruz,
 - herrien artean hirugarren erakunde batzuen bidez, bereziki “Laguntza” funtzioei loturik (giza baliabideak, administrazioa eta finantzak, etab.),
- **herri eta lanbide-zuzendaritzaren 56 proposamen identifikatzea**, inkesta baten bidez eta lurralde-eremuen mailan sakontze-urrats batez osatua, hauek barne:
 - 8 herriek proposatu dituzte eta beha dira Euskal Elkargoak parte hartzea elkargoaren gaitasun eta ingeniariaritzaren partekatze eta esku uzteko,
 - 20 Euskal Elkargoko lanbide-zuzendaritzek proposatu dituzte, eta beha dira herriek parte hartzea laguntza operazionalari eta herrien hurbiltasunari begira, erosketa-taldee begira eta elkargoaren gaitasun eta ingeniariaritzaren partekatzeari eta esku uzteari begira,
 - 5 herriek eta Euskal Elkargoko lanbide-zuzendaritzak dituzte elkarrekin proposatu antolamenduaren, hizkuntza-politikaren eta trantsizio ekologikoaren eta energetikoaren alorrean,
 - 17 herriek proposatu dituzte Euskal Elkargoaren laguntzarik gabe; hauek ez badute elkargo-eskemaren eremua integratzeko xederik, erakusten dute herriek mutualizaziorako xedea dutela,
- **bideen programatze-prozesuaren finkatzea**, lau printzipiotan oinarritua:
 - *anbizio printzipioa*: herriek eta lanbide-zuzendaritzek jakinarazi xedeen errespetua, denboran zehar ahal bezainbat bide ikertuz,
 - *aukera printzipioa*: herriek eta Euskal Elkargoak partekatu bideen ikerketa lehentasunez,
 - *jasangarritasun printzipioa*: urtean bi bide gehienik lurralde eremuko eta ZONko, herrietako eta Euskal Elkargoko langileen mobilizazioa eta inplikazioa bermatzeko gogoeta eta proposamen tailerren kariatara, eta dagozkien zerbitzu-beharrekin bateragarri egitea,
 - *errealitate printzipioa*: urteko programatuak diren bideez gain, mutualizazio-bide berri baten esploratzeko posibilitatea, presazko behar operatibo bati ihardesten diona; azken printzipio hori jadanik obratu da eskemaren apailatze desmartxa guzian zehar; hainbat dispositibo gauzatzeko parada ematen dute, adibidez, helbideratzeari buruzkoa.

Printzipio horiek kontuan hartzean **hastapeneko programazioa finka daiteke, “sartze eta ateratze iraunkorren” logikan oinarritua**. Honela egituratua da:

- “oinarizko programazio” bat badu zenbait urtetarako, N urtean finkatua eta bideak eta ikerketa urteak finkatzen dituen epe laburrera eta ertainera,

- oinarritzko programazio horren urteko eguneratzea:
- esplorazio-tailerretako emaitzak kontuan hartzen ditu, eta, beharrez, aurreikusia zen baina ikertu ez den bide bat berriaz programatu dezake,
- hastapeneko programazioan programatu bideak berresten ditu,
- beharrez, identifikatu ez ziren bide berriak programatzen ditu,

➤ **zenbait urtetarako den hastapeneko “oinarritzko” programazioaren finkatzea, hauek aurreikusten dituen:**

2024rako, herriek eta Euskal Elkargoak partekatu bideen esplorazioa:

- SIG zerbitzu komuna
- hizkuntza politiken zerbitzuen mutualizazioa Errobiko eta Hego Lapurdiko lurralde eremuetako herrientzat
- Finantzamendu berde eta iraunkorren zerbitzu komuna Xiberoko lurralde eremuarentzat
- LKAEP ingeniariaren mutualizazioa Hego Lapurdiko lurralde eremuko herrientzat
- Energiaren zerbitzu komuna Amikuzeko lurralde eremuko herriak laguntzeko beren Energia proiektuan 2025. eta 2026. urtetarako, lehentasunezko beste proposamenen esplorazioa segitzea. Programazio horren bururatzeko lurralde eremuek eta lanbide-zuzendaritzek doiketa batzuk egin behar dituzte oraino.

➤ **Esplorazio-tailerren helburu operatiboak eta antolamendu-moldeak finkatzea:** egingarritasun baldintzak finkatzeko, mutualizazio-bide bakoitzaren esplorazioa lan talde berezi bati ematen zaio, herriko eta herriarteko langileez osatua. Eztabaida, gogoeta eta trukaketa egiteko taldeetan bildurik, tailer bakoitzak erabakiak hartzen laguntzeko elementuak sortzeko ardura badu, deskribapen-ohar gisa, egungo antolakuntza-moldeei eta zenbaki nagusi egokiei, mutualizazioaren helburuei eta deskripzioari, mutualizazioarako dispositibo juridikoari, programazio- eta obratze-egutegiari begira, etab. Ondotik elementu horiek guzkiek herrietako eta Euskal Elkargoko hautetsien jarrera eta erabaki hartzea lagunduko dute.

Horrela, eta alderdi pragmatikoaz gain, eskema horrek herriarteko lurraldeari oinarri metodologikoa ematen dio aldi berean pragmatikoa, malgua eta ebolutiboa dena, ondoko urteetan mutualizazioak sendotzen segitzeko, printzipio, prozesu eta antolakuntza-moldeetako elementuak hornituz.

Horrela, haren obratzeak lagundu behar du Euskal Elkargoaren eta haren herri-kideen arteko elkartasun harremanak gehiago sendotzen, eta Euskal Elkargoaren eraikuntzaren segitzen.

Ikusirik tokiko bizitzan parte hartzeari eta ekintza publikoaren hurbiltasunari buruzko 2019ko abenduaren 27ko 2019-1461 legea, bereziki 80. artikulua;

Ikusirik Lurralde Elkargoaren Kode Orokorra eta bereziki L. 5211-39-1 artikulua, bere zerga-sistema duen herriarteko lankidetzarako publikoko zerbitzuen eta kide diren herrietako zerbitzuen arteko zerbitzu-mutualizazioari buruzko txostena egiteari buruzkoa;

Ikusirik 2016ko uztailaren 13ko 64-2016-07-13-011 prefetaren erabakia, Euskal Hirigune Elkargoaren sorkuntzari buruzkoa eta haren eskumenak finkatzen dituen;

Ikusirik Euskal Hirigune Elkargoko Kontseiluaren 2020ko uztailaren 17ko deliberoa, Gobernantza Itun baten apailatzeari buruzkoa,

Ikusirik herriarteko elkartasun zerga eta finantza ituna, 2022ko uztailaren 9ko Elkargoko Kontseiluaren deliberoz onartua,

Ikusirik 2024ko Euskal Hirigune Elkargoko buruilararen 28ko Elkargoko Kontseilua, elkargoko mutualizazio eskema onartu duena,

Ikusirik eranskinetan dagoen mutualizazio eskema proiektua;

Aho batez deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

ERABAKI du

- atxikirik den elkargoko mutualizazio eskema proiektuaren hitzak onartzea;
- deliberazio honen jakinarazpena errezibitu dela erratea Euskal Hirigune Elkargori
- baimena ematea jaun auzapezari edo haren ordezkoiari delibero honen betetzeko behar diren erabaki guztiak hartzeko edo behar diren dokumentu guztiak izenpetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA:

ABSTENTZIOAK:

4- 2024-69 DELIBEROA - CDG64K PROPOSATU ARE DOSIERREN KUDEAKETA-HITZARMENARI KIDETZEA – 4.1 NOMENKLATURA

Auzapezak Herriko Kontseiluko kideei esplikatu die Kudeaketa Zentroek kide dituzten elkargoei hautuzko zerbitzuak proposa diezazkietela.

Karia horretara, Pirinio Atlantikoetako Lurraldeko Funtzio Publikoaren Kudeaketa Zentroak proposatzen du lanera itzultzeko dirulaguntza (ARE) dosierren kudeaketa zerbitzua.

Proposatu du Kudeaketa Zentroak 2025/01/01etik goiti proposatu enplegura itzultzeko dirulaguntza dosierren kudeaketa hitzarmenari kidetzea.

Herriko Kontseiluak,

ONARTU du Kudeaketa Zentroak **2025/01/01etik** goiti proposatu enplegura itzultzeko dirulaguntza dosierren kudeaketa hitzarmenari kidetzea.

BAIMENDU du jaun auzapeza proposatu hitzarmenaren izenpetzera (ikus eranskinetan);

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE: 15

KONTRA:

ABSTENTZIOAK:

5- 2024-70. DELIBEROA - MANDATUA EMATEA CDG64RI ESTATUTU-ASURANTZA TALDE-KONTRATUA LEHIAN EZARTZEKO – 4.1 NOMENKLATURA

Auzapezak elementu hauek aurkeztu ditu:

Tokiko elkargoei eta erakunde publikoek langileei nahitaez ordaindu behar dizkie mediku tratamenduak edo gastuak lan-istripu batengatik, eguneko ordainsariak eritasun eta amatasun geldialdi batengatik, dirulaguntza bat heriotza batengatik...

Elkargoak estatutua hunkitzen duten arriskuen kontra aseguratu daitezke lurraldeko langileendako asurantzakontratuen bidez.

Kudeaketa zentroek estatutu-asurantzak talde-kontratuak proposa ditzakete lurraldeko elkargoak eta kide diren erakunde publikoak aseguratzeko haien estatutu-betebeharren ondorio diren finantza-arriskuen kontra (heriotza batengatik, lan-istripu batengatik, eritasun profesionalagatik, iraupen luzeko eritasunagatik, iraupen luzeko oporreragatik, eritasun arruntagatik, amatasun geldialdiagatik...).

Eskaera publikoaren arauak betetzeaz gain, ikuspegi kolektibo honek arriskuak partekatzeko eta, beraz, tarifa erakargarriak eta finantza-bermeak lortzeko parada ematen du.

Pirinio Atlantikoetako Kudeaketa Zentroak talde-kontratu horien berritzeko asmoa du, lehian ezartze prozeduraren ondotik.

Oroitarazi da elkargoak CDG 64k plantan ezarri estatutu-asurantzak talde-kontratuak hartu dituela 2021-2025erako:

- Talde-kontratu bat CNRACLEko kide diren lurralde-funtzionarioen arriskuei dagokiena (asteaz gutenez 28 orenez ari diren funtzionario-gaiak eta titularrak)
- Eta talde-kontratu bat araubide nagusiari lotu eta IRCANTECeko kide diren langileen arriskuei dagokiena (asteaz gutenez 28 orenez ari diren funtzionario-gaiak eta titularrak, eta eskubide publikoko kontratupeko langileak)

Baldintza hauetan, herriak asurantzakontratuak lehian ezartzeko betebeharra du eta interesa du CDG 64k egiten duen lehian ezartze prozeduran parte hartzeko.

Delibero honek Kudeaketa Zentroari ematen dion mandatuaren bidez herriari bere asurantzakontsulta ez egiteko parada ematen dio eta CDG 64ri asurantzak-enpresa onetsiekin estatutu asurantzak-talde kontratuak beretzat negoziatzeko parada.

Auzapezak zehaztu du kontsulta ikusirik, kontratuei kideitzeko erabaki finkoa eztabaidatu beharko dela, CDG 64k kausitu tasak eta baldintzak jakin ondoan.

Deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

*Ikusirik Funtzio Publikoaren Kode Orokorra,
Ikusirik 1986ko martxoaren 14ko 86-552 dekretua, 1984ko urtarrilaren 26ko 84-53 legearen 26. artikulua aplikatzeko hartua, eta
kudeaketa-zentroek tokiko elkargoen eta lurralde-erakundeen izenean hartu asurantzak kontratuei buruzkoa,*

ERABAKI du:

Herriak kontsulta prozedura CDG 64 erakundearen gomendio uztea, beharrez, haren kondu asurantzak talde-kontratua hartzeko onetsia den asurantzak-entrega batean.

Talde-kontratu horiek beharko dituzte arrisku hauek osoki edo partez estali:

➔ CNRACLren kide diren funtzionarioentzat: heriotza, lan istripua/ eritasun profesionala, eritasun arrunta, eritasun luzea/iraupen luzeak, amatasun/aitatasun geldialdia/ adopzioa...

➔ Erregimen nagusiari lotu eta IRCANTECeko kide diren langileentzat: lan istripua / eritasun profesionala, eritasun arrunta, eritasun larria, amatasuna / aitatasuna / adopzioa...

Proposatutako talde-kontratuak kideentzat behin betiko erabakia berantago eztabaidatuko da.

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE 15

KONTRA:

ABSTENTZIOAK:

6-2024-71. DELIBEROA - IRULEGIKO HERRIAK ESKOLA PUBLIKOKO FUNTZIONAMENDU GASTUETAN PARTE HARTZEA 2024-2025 IKASTURTERAKO – 8.1 NOMENKLATURA

Auzapezak Herriko Kontseiluak jakinarazi dio 2021eko abenduaren 17ko erabakiaren arabera Irulegiko herriak Baigorriko lehen maila publikoaren funtzionamendu kargetan parte hartu behar duela, eta orduan 900 €-tan finkatu dela haur bakoitz, eta zenbateko hori urte guzietan emendatzeko dela.

Herriko Kontseiluak zenbateko horren bozkatzeko galdatu dio, zehaztuz argindarraren prezioen emendatzeak prezioa kargatzen duela.

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta luzaz deliberatu ondoan,

ERABAKI du 2024-2025 ikasturterako **1026 €**-ko prezioa aplikatzea haur bakoitz, Irulegiko Herriko Etxeak ordaindu behar duena lehen maila publikoko funtzionamendu kargetan parte hartzeko

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE 15

KONTRA:

ABSTENTZIOAK:

7- 2024-72 DELIBEROA - HITZARMENA EUSKAL ELKARGOAREKIN HERRIA “ZERGA BEHATOKI PARTEKATUA” ZERBITZU KOMUNARI KIDETZEAREN ONDORIOAK ANTOLATZEKO – 5.7 NOMENKLATURA

Euskal Hirigune Elkargoak eta kide dituen herriek zerga behatoki partekatua badute 2018az geroztik.

Euskal Elkargoak ingeniariaritzaren eskaintza zabaldu du kide dituen herrietarako, tokiko zuzeneko zergetarako eta diru-zuzkiduretarako.

Tokiko fiskalitate zuzena gidatzeko eta kudeatzeko tresna bat eskura uzten baita eta Elkargoaren Etxeetan permanentzia-zikloak antolatzen baitira, ingeniariaritzaren eskaintza hori eraginkorra da Ipar Euskal Herriko kasik herri guzientzat, eta herrietako hautetsiek eta langileek gero eta parte-hartze handiagoa dute, eta, orain, molde zabalagoan antolatzen dira ondoko hainbat herri biltzen dituzten lan-taldetan.

Zerga behatoki partekatu horren xedea da herriak laguntzea tokiko zuzeneko zergen sailean zerga oinarriak segitzeko

eta fidagarriago egiteko, erabakitzeko laguntza emateko eta legeen eta arauen bilakaerak herriko baliabideetan duen eragina zaintzeko.

2023an Ipar Euskal Herrian finantza publikoen hurbileko sarea plantan ezarri zen eta horren bidez gutun bat egin zen finantza publikoen departamendu zuzendaritzaren eta Euskal Elkargoaren artean, tokiko fiskalitatearen alorrean obratu ingeniartza-eskaintza hori barne hartzen duena.

Orain arte formalizatua ez zen zerga behatoki partekatua integratuagoa izan dadin, eta lurraldean bateratze eskemaren desmartxa abian ezarri baita, egokia iduritu da zerbitzu komun bat plantan ezartzea.

Jaun auzapezak proposatu du herria Euskal Hirigune Elkargoaren “Fiskalitatea eta Diru-zuzkidurak” zerbitzu komunean sartzea hitzarmen baten bidez. Zerbitzu horren kostua Euskal Hirigune Elkargoak du bere gain hartuko.

Deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluari proposatu zaio:

- **Euskal Hirigune Elkargoaren “Zerga Behatoki Partekatua” zerbitzu komunari kidetzearen alde bozkatzea;**
- **Euskal Elkargoaren eta herriaren artean zerbitzu horren funtzionamenduaren printzipioak arautzen dituen deliberazio honi lotu hitzarmena onartzea;**
- **jaun auzapeza baimentzea hitzarmen horren izenpetzeko baita ere dossier horri doakion dokumentu oro, beharrezkoa den aldi oro.**

Kargutan diren kideen kopurua: 15

Hor ziren kideen kopurua: 14

Bozkatu dutenen kopurua: 15

ALDE 15

KONTRA:

ABSTENTZIOAK:

8- 2024-73 DELIBEROA - EUSKAL ELKARGOAREN GEOGRAFIA INFORMAZIO SISTEMARA SARTZEKO ZERBITZU KOMUNARI KIDETZEA – 5.7 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak biltzarrari jakinarazi dio Euskal Hirigune Elkargoak proposatu duela zerbitzu komun mutualizatu berri baten sortzea herriek lurraldeko geografia-informazio sisteman sarbidea ukaiteko; bi urratsetan egingen da:

1. Elkargoko GéoBasque tresna kitorik esku utziko zaie kide diren herriei (oinarrizko zerbitzua) 2025eko urtarilaren 1etik goiti.
2. Eta nahi ukanen duten herriek datuak, funtzioak eta zerbitzuak sakontzen ahalko dituzte (ordainduko den zerbitzu aitzinatua).

Alabaina, 2020az geroztik, Euskal Elkargoak geografia datu azpiegitura berria du, GéoBasque, datuen kalitatea eta fidagarritasuna bermatzeko, kostuak (materialak, softwarea eta jendeak) eta eguneratzeak arrazionalizatuz. Horri esker datuak eta tresnak harmonizatu, bateratu eta aberastu dira oinarri komun batean oinarrituz, ordu arte lurraldea lehengo herriarteetatik heldu ziren sistema desberdinek estaltzen zituzten.

Ordu arte GéoBasque ez da herrien esku utzi, eta gainera Ipar Euskal Herriko LTEPk Ipar Euskal Herriko herri guzietan “SIG SIF3” edo “arcOpole” kontsulta-tresna eskaintzen die (orain arte Euskal Elkargoaren WGEO PC eta WGEO DIA instrukzio-tresnei lotua da). Herri batzuek Tokiko Kudeaketarako Agentzia Publikoaren GIS zerbitzua ere badute edo WebSIG IsiGéo, adibidez.

Oroitarazteko, Hego Lapurdiko lurralde eremuko 12 herri lurralde horrena den Elkargoaren GIS zerbitzu mutualizatu komunean sartu dira, 2017 baino lehenagoko Hego Lapurdi - Euskal Elkargotik ukana. 158 herrien zerbitzu komunak pixkanaka ordeztuko du dagoen lurraldekako zerbitzuaren tokia.

GIS zerbitzu komun mutualizatu baten sortzea Euskal Hirigune Elkargoaren eta kide dituen herrien artean:

GIS zerbitzu komun mutualizatu hori sortu da herrien eta elkargoaren beharrei ihardesteko.

- **Mutualizatuz**, federatzailea izanen den GIS tresna bakarrera buruz joaten ahalko da, GéoBasque, herrietako eta elkargoetako langileendako erreferentzia komuna.
- Euskal Hirigune Elkargoak **GIS tresna partekatua** plantan ezarri du herriek beren lurraldeko datu geografiko nagusiak ukaiteko (kadastra, hirigintza-dokumentuak, sareak, aireko eta sateliteko argazkiak, helbideratzea, etab.), eguneratuak izanen direlako bermearekin.
- **Datuaren kalifikazioa eta hobekuntza**: herri saredun lurraldetik ahalik eta hurbilen kontsultatuz, tresna komun baten kontsultatzeak datuaren hobekuntzarako gupil zuhurra eskaintzen du (seinalamenduak, akatsak izanez gero).
- **Tresna federatzailea**: eguneroko tresna bera herriak eta Euskal Elkargoak partekatua, GIS erreferentziak eta nortasun komuna indartzeko.
- **Ekonomikoa eta ekologikoa**: GIS zerbitzu komunak herriari parada ematen dio Euskal Hirigune Elkargoko GIS zerbitzuak administratu eta zentralizatu WebSIG baten ukaiteko Interneten bidez, datuak hainbat tresna eta

zerbitzaritan bikoiztu gabe, administrazio-kostu mugatuekin eta denbora irabazteko, hainbat tresnen arteko interoperabilitatea eta datuen partekatzea bermatu beharrik ez izateko.

- **Behar teknikoak:** GéoBasque tresnaren xedea da LTEPk esku utzi SIF3ren ordezkatzeko datu berak proposatuz, elkargoko datuen katalogo osoaz eta Euskal Elkargoak proposatu erreferentzia-datuez osaturik.

GéoBasque herriari esku uzteko moldeak

Behar horiei ahal bezain ongi ihardesteko, informazio geografikoko zerbitzu komun mutualizatua sortzea proposatu da, arkitektura honen arabera:

Zerbitzuaren oinarria: herriari GéoBasque eskaintzea, 2020az geroztik Euskal Hirigune Elkargoak finantzatu eta garatu tresna. Zerbitzu komun mutualizatu horren funtzionamendua GIS zerbitzuko langileek bermatuko dute, esku utzi langileak dira, beren elkargo-eginkizunez gain. Jadanik lanean den langile bat ariko da zerbitzu komun horren hedapenean 2025ean.

Ipar Euskal Herriko GIS zerbitzu komunak bi zerbitzu ukanen ditu, aldizka hedatuak:

- Lehen zerbitzu bat, hemendik aitzina "oinarrizko zerbitzua" deituko dena, GéoBasque-ren bidez esku utziko den lurraldeko datu geografikoen oinarria da (lanbide-tresna bereziak barne hartu gabe), baita ere erabiltzeko formakuntza eta praktikan laguntzea. Kitorik hedatuko da 2025eko urtarrilaren 1etik goiti hitzarmen honetan aurkeztu moldeen arabera.
- Ondotik, eta oinarrizko zerbitzuari kidetzea oinarri gisa harturik, hemendik "zerbitzu aitzinatua" deituko dena, nahi duten herriekin lankidetzan eraikiko da herri-datuen sartzeko, zerbitzu berezietarako edo datuen eskuratzeko eskaera-taldeetarako.

Zerbitzu horrek baliabide dedikatuak eta neurritan ezarri beharreko aurrekontua beharko ditu, eta, beraz, prezioa finkatuko da herriek adierazi beharren eta kide nahi duten herri kopuruaren arabera. Zerbitzu aitzinatu horren eraikitzeak tailerrak 2025ean eta 2026 hastapenean egitekoa dira.

Hitzarmen honi gehigarri bat ezarriko zaio dispositiboak eta kidetze-moldeak zehazteko herria hautagai izanez gero.

"oinarrizko" GIS zerbitzu komuna aplikatzeko:

"Oinarrizko" zerbitzuaren kariatara, proposatua da elkargo-oinarriaosatzen duten datuak kontsultatzeko, inprimatzeko eta esportatzeko funtzioetarako sarbide estandarra, baita laguntza eta erabilerarako euskarria ere.

Lurraldeko informazioa zerbitzuaren ardurak:

- GéoBasque funtzionatzeko egoeran mantentzea, zerbitzu-emaileen kudeaketa eta jarraipena eginez, haien esku hartzea beharrezkoa baita behar bezala funtzionatzeko;
- erabiltzaile kontuen administrazioa herriaren izenean: kontu nominal guzien sortzea, lotu eskubideen kudeaketa, kadastrako datu nominaletarako sarbidea izateko DBAN erabilera-oinarria;
- datu-base fidagarri eta eguneratu baten kudeaketa administratiboa eta teknikoak;
- datuen sailkapena;
- tresnen funtzionalitate sinpleei buruzko formakuntza, gehienez 20 formakuntza 2025. urtean, hastapen batean langile teknikoentzat eta, ondotik, galdatuko duten hautetsientzat;
- GéoBasque erabiltzaileendako laguntza teknikoak eta erabiltzaileen laguntza, GIS zerbitzuari dei egiteko txartel-sistema baten bidez galdera bat egiteko edo laguntza galdatzeko;
- Euskal Hirigune Elkargoaren eta herriaren arteko mutualizazio eta koordinazio sistemaren kudeaketa;
- informazio geografikoari lotu zaintza teknikoak eta legalak.

Obratzea eta iraupena

Ipar Euskal Herriko GIS zerbitzu komunari kidetzea indarrean jarriko da bi alderdiek, herriak eta Euskal Elkargoak, hemen atxikirik den hitzarmena izenpetuko duten egunean, 2025eko urtarrilaren 1etik aitzina.

Hitzarmen hau epe mugagabeko hitzartuko da.

Ikusirik Lurralde Elkargoen Kode Orokorra, bereziki L.5211-4-2 artikulua, erraten duena eskualdatu eskumenez gain, bere zerga sistema duen herriarteako kooperazio erakunde publiko batek eta kide diren herri batek edo batzuek zerbitzu komunak har ditzaketela;

Ikusirik Euskal Hirigune Elkargoaren informazio geografikorako sistemara sartzeko zerbitzu komun mutualizatuaren kidetza-hitzarmenaren proiektua (atxikirik);

Herriko Kontseiluari galdegin zaio:

- **ONARTZEA** ereduzko hitzarmenaren baldintzen arabera (atxikirik), Euskal Hirigune Elkargoko informazio geografikoko sistemara sartzeko zerbitzu komun mutualizatuaren "oinarrizko" moduluko kide izatea;
- **BAIMENTZEA** jaun auzapeza edo haren ordezkaria hitzarmena izenpetzera, baita ere doazkion dokumentu oro.

Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE 15
KONTRA:
ABSTENTZIOAK:

9-2024-74. DELIBEROA - 2024KO “FUNTS BERDEA” PROGRAMA – HERRI-PARTEAREN FINANTZATZEKO PROIEKTUAREN ONARTZEA - 24REP001. AFERA – 9.1 NOMENKLATURA.

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldeari galdatu diola obra hauetarako ikerketa egitea: **Argiteria publikoa berritzea tresna funtzional zaharrak ordezkatzuz.** Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldeko lehendakari jaunak herriari jakinarazi dio obretarako zer kostu estimatzen den. Obrak SN COPELEC – CENERGY enpresak egingen ditu.

Jaun auzapezak zehaztu du obra horiek “Funts Berdea 2 - 2024” Baserrialdeko Elektrifikazio Programaren barne direla, eta Herriko Kontseiluari proposatu dio gastuaren zenbatekoa onartzea eta obra horien finantzamendua bozkatzea.

Herriko Kontseiluak auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan:

- **ERABAKI du** gorago aipatu obrak egitea, eta Pirinio Atlantikoetako Energia Lurraldeari obrak egiteko ardura eman dio.
- **ONARTU du** obren zenbatekoa eta dagozkien gastuak:
 - obren zenbatekoa BEZa barne 29 193,60 €
 - obragintzarako laguntza, obralariak eta ustekabekoak 2 919,36 €
 - TE64ren kudeaketa gastuak 1 216,40 €
 - OROTARA **33 329,36 €**
- **ONARTU du** operaziorako aurreikusi finantzamendu plana:
 - TE 64 – Fvren parte hartzea 18 732,56 €
 - Balio erantsiaren gaineko zergaren konpentsazio funtsa (TE64k berreskuratzea) 5 267,81 €
 - Herriko Etxeak obretan parte hartzea, funts libreekin finantzatzekoa (*) 8 112,59 €
 - Herriko Etxearen parte hartzea kudeaketa gastuetan (funts libreekin finantzatzekoa) 1 216,40 €
 - OROTARA **33 329,36 €**

2024-28 deliberoak TE 64k hartu maileguaren bidez obren herri-parte (kudeaketa gastuez kanpo) finantzatu nahi duten herriek mailegua ukaiteko baldintzak finkatzen ditu. Horrela, gutieneko muga finkatua da herriko biztanle kopuruaren arabera. Hemendik aitzina taula hau aplikatu daiteke:

Herriko biztanle kopurua	Mailegua ukaiteko gutieneko muga
2 000 biztanle edo gehiago	10 000€
1 000 eta 1 999 biztanleren artean	5 000 €
999 biztanle edo gutiago	2 500€

- Herriaren behin betiko parte hartzea finkatuko da obren behin betiko zenbaketa egin ondoan.
- Gainera, herriak bere parte hartzea “funts libreekin” finantzatzen baldin badu, TE64k zati ordainketa bat edo gehiago galdegiten ahalko dizkio, egin obren arabera.
- **ONARTU du** gerta litekeen herriko jabego pribatuaren gaineko zorra kitorik, baita ere TE64k energia ekonomia agiriak berreskuratzea, obren arabera posible delarik.
 - **TRANSMITITU dio** delibero hau legezkotasun kontrolari.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE 15
KONTRA:
ABSTENTZIOAK:

10-2024-75. DELIBEROA - BELEXIKO BIDEAREN SENDOTZE ETA SUSTENGU OBRAK ARROKAK EZARRIZ - POLIZIA-ISUNEN DIRU-ZUZKIDURA GALDEA – 7.5 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio beharrezkoa dela, 2024/10/17ko aro gaiztoarengatik, Belexiko bidearen sendotzea eta sustengatzea arrokak ezarriz. Biltzarrari jakinarazi dio poliziaren isunen emaitzetatik atera diru-zuzkidura herriei ematen ahal zaiela herri-errepideak konpontzeko aro gaiztoaren ondotik, errepideetako erabiltzaileen segurtasun-maila mantentzeko.

Jaun auzapezak jakinarazi du herriak polizia-isunen emaitzetatik atera dirulaguntza galdea egingen diola departamenduari. Jaun auzapezak Carrières et Travaux de Navarre enpresaren estimazio-aurrekontua irakurri du: **20 596.05 €-koa da (BEZa gabe).**

- Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,
- **ONARTU du** Belexiko bidearen sendotze eta sustengu obrak egitea
 - **ONARTU du** 20 596.05 €-ko (BEZa gabe) estimazio-aurrekontua
 - **GALDATU dio** departamenduari polizia-isunen emaitzetatik atera dirulaguntza ukaitea, ahal bezain handia

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE 15
KONTRA:
ABSTENTZIOAK:

11-2024-76. DELIBEROA - LARLAKO BIDEKO OBRAK LUR LEHERTZEA KENTZEKO – 7.5 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio beharrezkoa dela, 2024/10/17ko aro gaiztoarengatik, Larlako bidean gertatu lur lehertzea kentzeko obrak egitea. Biltzarrari jakinarazi dio poliziaren isunen emaitzetatik atera diru-zuzkidura herriei ematen ahal zaiela herri-errepideak konpontzeko aro gaiztoaren ondotik, errepideetako erabiltzaileen segurtasun-maila mantentzeko.

Jaun auzapezak jakinarazi du herriak polizia-isunen emaitzetatik atera dirulaguntza galdea egingen diola departamenduari. Jauna auzapezak Carrières et Travaux de Navarre enpresaren estimazio-aurrekontua irakurri du: **19 942.67 €-koa da (BEZa gabe).**

- Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,
- **ONARTU du** Larlako bideko lur lehertzea kentzeko obrak egitea
 - **ONARTU du** 19 942.67 €-ko (BEZa gabe) estimazio-aurrekontua
 - **GALDATU dio** departamenduari polizia-isunen emaitzetatik atera dirulaguntza ukaitea, ahal bezain handia

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA:
ABSTENTZIOAK:

12-2024-77. DELIBEROA-HODIAK EZARTZEKO OBRAK UHARRIETAKO BIDEAN - POLIZIA-ISUNEN DIRU-ZUZKIDURA GALDEA – 7.5 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio beharrezkoa dela, 2024/10/17ko aro gaiztoarengatik, Uharrietako bidean hodiak ezartzea. Biltzarrari jakinarazi dio poliziaren isunen emaitzetatik atera diru-zuzkidura herriei ematen ahal zaiela herri-errepideak konpontzeko aro gaiztoaren ondotik, errepideetako erabiltzaileen segurtasun-maila mantentzeko.

Jaun auzapezak jakinarazi du herriak polizia-isunen emaitzetatik atera dirulaguntza galdea egingen diola departamenduari. Jauna auzapezak Carrières et Travaux de Navarre enpresaren estimazio-aurrekontua irakurri du: **9 425.21 €-koa da (BEZa gabe).**

- Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,
- **ONARTU du** horiak ezartzeko obrak egitea Uharrietako bidean
 - **ONARTU du** 9 425.21 €-ko (BEZa gabe) estimazio-aurrekontua
 - **GALDATU dio** departamenduari polizia-isunen emaitzetatik atera dirulaguntza ukaitea, ahal bezain handia

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA:
ABSTENTZIOAK:

13-2024-77. DELIBEROA-OBRAK EGITEKO BIDAINEKO BIDEAN - POLIZIA-ISUNEN DIRU-ZUZKIDURA GALDEA – 7.5 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari oroitarazi dio beharrezkoa dela, 2024/12/08ko aro gaiztoarengatik, Bidaineko bidean obrak egitea lur lehertzeen ondotik. Biltzarrari jakinarazi dio poliziaren isunen emaitzetatik atera diru-zuzkidura herriei ematen ahal zaiela herri-errepideak konpontzeko aro gaiztoaren ondotik, errepideetako erabiltzaileen segurtasun-maila mantentzeko.

Jaun auzapezak jakinarazi du herriak polizia-isunen emaitzetatik atera dirulaguntza galdea eginen diola departamenduari. Jauna auzapezak Carrières et Travaux de Navarre enpresaren estimazio-aurrekontua irakurri du: **18 540.49 €-koa da (BEZa gabe).**

- Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,
- **ONARTU du** obrak egitea Bidaineko bidean, gertatu lur lehertzeen ondotik
 - **ONARTU du** 18 540.49 €-ko (BEZa gabe) estimazio-aurrekontua
 - **GALDATU dio** departamenduari polizia-isunen emaitzetatik atera dirulaguntza ukaitea, ahal bezain handia

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA:
ABSTENTZIOAK:

14- 2024-79- LARRAZKENA ZAHAR ETXEAREN HANDITZEKO ETA BERRITZEKO OBREN MERKATUAREN ESLEIPENA – 1.1 NOMENKLATURA

Auzapezak jakinarazi du Larrazkena zahar etxearen handitzeko eta berritzeko obrak eginen dituzten enpresak hautatzeko kontsulta antolatu duela prozedura egokiaren arabera.

Lehian ezartzeko, Legezko Abisuen Agerkarian abisu bat argitaratu da. Eskaintzak aztertu ondoan, merkatuak ofiziale hauei ematea proposatu da:

ZATIA	Enpresa	Zenbatekoa (eurotan, BEZa gabe, beharrez, atxiki diren aldaerekin)
1. zatia AURTIKITZEA -VRD -GO	BATEGIN kooperatiba	73 882.19 €
2. zatia: ZUREZKO APAINDURA EGITURA	BATEGIN kooperatiba	99 37.99 €
3. zatia: ZURGINTZA-ZINKA	BATEGIN kooperatiba	113 005.96 €
4. Zatia : IRAZGAIZTASUNA	SAT ETANCHÉITÉ	33 84.60 €
5. zatia: LEIHOAK	BATEGIN kooperatiba	51 994.65 €
6. zatia: IGELTSUA	BATEGIN kooperatiba	44 888.50 €
7. zatia: ELEKTRIKA CFO-CFA	BATEGIN kooperatiba	67 388.00 €
8. zatia: BEROGAILUA-HAIZEZTAPENA AIRE GIROTUA	LOGIS CONFORT ERROBI	183 7.74 €
9. Zatia TINDUA-ZOLA ESTALDURA	CBR	257 189.51 €
10. Zatia SARRAILAK	SAMET BESSONART	22 990.00 €
	OROTARA	946 669.14€

Biltzarrari galdegin dio kontsulta horri eman beharreko segidari buruz bozkatzea eta bulegoan pausatu ditu errezibitu eskaintzak baita ere azterketa dosierra.

Gainera, dossier horretarako herriko administrazioa errazteko xedez, biltzarrak eman baimenak eta ordezkariak beharrez ordezekoari eman litezke.

Biltzarrak, luzaz deliberatu ondoan,

BAIMENA eman dio auzapezari merkatuen izenpetzeko, aurkeztu denaren arabera;

ERABAKI du auzapezak trabarik balu, bere ordezekoak baimen eta ordezkariak hauek ukanen dituela.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA:
ABSTENTZIOAK:

15-2024-80. DELIBEROA- EUSKAL HERRIKO TRAIL ESTAZIOEI KIDETZEA – 9.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak jakinarazi du Euroeskualdeko Herritartasun proiektu deialdia badela 2024rako. Biltzarrari esplikatu dio: badu bi urte Baigorriko herria, Uharte Arakileko herria, Goitur Turismoa enpresa eta Tolosaldea Garatzen enpresa lankidetzan ari direla bakoitzak kudeatzen duen trail estazioak batzeko markaren sortzeko.

Lurraldeko proiektu kolektibo hori Baigorriko herriak du gidatuko. Proiektu horrek komunikazio eta lurralde-lankidetzarako tresna izan nahi du, mendi-lasterkariak eta ibiltariak erakartzeko eta errespetuzko kirol-praktikari sentsibilizatzeko. Pirinioetako bi aldeen arteko trukaketak garatuko ditu.

Proiektu horretarako, zerbitzu hornitzaile bat hautatuko da izena, logotipoa eta araudi grafikoa diseinatzeko, eta seinaleetika plantan ezarriko da. Komunikazioa garatzeko webgune bat sortuko da 3 hizkuntzatan (euskaraz, frantsesez, gaztelera), eta 4 trail estazioak bilduko ditu.

4 trail estazioak lurralde mailan Euroeskualdeak bakarrik estaltzen duen eremuan dira.

Proiektu hori 4 partaideen arteko harremanaren bidez garatu sinergia naturalaren emaitza da.

Euroeskualdea proiektu horren finantzatzaileetarik bat da, eta Baigorri, proiektu horren gidari gisa, Euroeskualdeak eman dirulaguntzak errezibituko ditu eta gorago aipatu partaideen artean bidezko moldean banatuko.

Auzapezaren txostena entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

- **ONARTU du** herria EHTEn sartzea
- **HITZ EMAN du** partaideei ordaintzea proiektuan duen parte hartzeari dagokion zenbatekoa
- **ONARTU du** proiektu kolektibo hori

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA:
ABSTENTZIOAK:

16-2024-81. DELIBEROA - KANPOKO ERABILTZAILEEI APAIRUAK HORNITZEKO HITZARMENAREN ONARTZEA – 9.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak Herriko Kontseiluari jakinarazi dio departamenduak eskolako jantegiaren eskumena duela 2005eko urtarilaren 1az geroztik. Departamenduak onartzen du kolegioak apairuak hornitzea kanpoko elkargoei edo organismoiei hitzarmenen kariatara eta kolegioko Administrazio Kontseilua ados izanez gero.

Jaun auzapezak irakurri du Departamenduaren, Jean Pujo kolegioaren eta Baigorriko herriaren artean egitekoa den hitzarmena.

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak,

- ✓ **ONARTU du** hitzarmen horren egitea Departamenduaren, Jean Pujo kolegioaren eta Baigorriko herriaren artean.
- ✓ **BAIMENA eman dio** jaun auzapezari apairuak kanpoko erabiltzaileei hornitzeko hitzarmena izenpetzeko.

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA:
ABSTENTZIOAK:

17- 2024-82 DELIBEROA- AURREKONTU NAGUSIARI BURUZKO ALDAKETA ERABAKIA – 7.1 NOMENKLATURA

Jaun auzapezak jakinarazi du aurrekontuan aldaketa hauek egin behar direla:

INBESTIMENDUA			
GASTUAK		IRABAZIAK	
Artikulua-operazioa	Zenbatekoa	Artikulua-operazioa	Zenbatekoa
2135- op 175	11 100.00 €	021- Funtzionamendu sailera biramendua	25 120.00 €
2238-op 120 Herriko eraikinak:	10 020.00 €		
2188-op 175	4 000.00 €		
	25 120.00 €		25 120.00 €
FUNTZIONAMENDUA			
GASTUAK		IRABAZIAK	
Artikulua-operazioa	Zenbatekoa	Artikulua-operazioa	Zenbatekoa
023- biramendua inbertsio sailera	25 120.00 €	6419 – ordainsarien ordaintzea	12 000.00 €
615221: Eraikin publikoak	-32 800.00 €	748374 bioaniztasuna baserrialdeko abantailak	19 600.00 €
65888: Beste	41 000.00 €	781: zor kitatzea eta hornidurak berriz hartzea	3 520.00 €
739221 : FNGIR	1 800.00 €		
	35 120.00 €		35 120.000 €
OROTARA	60 240.00 €		60 240.00 €

Jaun auzapezaren azalpen osagarriak entzun ondoan eta deliberatu ondoan, Herriko Kontseiluak, **ERABAKI du** aurrekontua gainean zehaztu bezala aldatzea

Kargutan diren kideen kopurua: 15
Hor ziren kideen kopurua: 14
Bozkatu dutenen kopurua: 15
ALDE: 15
KONTRA:
ABSTENTZIOAK:

AUZAPEZAK HARTU ERABAKIEN BILDUMA:

Gai orotarik: /

Hor zirenen zerrenda:

ARANGOITS Isabelle anderea, BIDART Pierre Betti jauna, CLAUZEL Sébastien jauna, COSCARAT Jean-Michel jauna, CURUTCHARRY Antton jauna, DEGUIRAUD Hélène anderea, DUPUY Maddalen anderea, HARISTOY Marie-Agnès anderea, ITHURBURUA Daniel jauna, JUANTORENA Annie anderea, MERCAPIDE Sandrine anderea, MOCHO Frantxoja jauna, MOUSQUES Bernadette anderea eta OLÇOMENDY Betti jauna

